



18/04/25

Goihabe programak, MOIN Sareak eta ekitaldi handietarako beharginen kontratazioak zentrau dabe Kontroleko Osoko saioa

Bizkaiko Batzar Nagusiek kontroleko osokoa egin dabe gaur goizean. Bertan, oposizioneko taldeek hiru gairen inguruko itaun bi eta ahozko erantzun-eske bat egin ditue: Bizkaiko Foru Aldundiak diruz-lagundutako edo modu politikoan babestutako ekitaldi handietako beharginen eta horniduren kontratazinorako baldintzak; Foru Aldundia Barrikuntzarako Mundu Mailako Sarean (MOIN) sartzea; eta Goihabe Programaren bitartez arreteta jasoten daben Errefuxiatuen Arretaren eta Prozesuen jarraipena. Saioa, enpleguaren, fiskaltasunaren, garraioen eta iraunkortasunaren inguruko beste gai batzuen gaineko ahozko zortzi erantzun-eskegaz eta lau itaunegaz osatu da.

Osokoa, Foru Aldundia MOIN Sarearen 22 sortzaileen artean sartu izanaren eta horregaz bilatzen diran helburuen gainean Talde Mistoak egin dauen itaunagaz zabaldu da. Erantzuteaz arduratu dan Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak barriztetearen garrantzia azpimarratu dau, arlo publikoan eta pribaduan, eta modu positiboan baloratu dau Aldundiak sarean daukan presentzia. Holan, eragile sortzaile guztiek lau gairen inguruan egingo dabe behar: zahartzea, mobikortasun iraunkorra, hazkunde demografikoa eta adimen artifizia. Horrez gain, Rementeriak adierazo dauenez, MOIN sarearen saioetako bat Bizkaian egiteko asmoa dago.

Imanol Pradales Ekonomiaren Garapenerako diputatua izan da ekitaldi handiei buruzko itaun bati eta ahozko erantzun-eske bati erantzun deusena. Lehenengoak, EH Bilduk planteautako itaunak, aurton Bizkaiak jasoko dituan ekitaldi handietan enpresek eta antolatzaileek lan arloko eskubideak bermatu beharra azpimarratu dau, kontratazio prekararioak saihesteko. Eskari horren aurrean, Pradalesek “itxuraz legetasuna errespetetan daben enpresa profesionalak dirala” esan dau. Horrez gain, gizarte arloko klausulak eta holango arazoak saihesteko tresna nagusietakoa izango dan gida-liburua aitatu ditu.

Bigarren esku-hartzean, Ekonomiaren Garapenerako diputatuak Talde Popularrak, MTV Sariak ospatzeko Foru Aldundiak bideratuko dauen aurrekontuaren gaineko ahozko erantzun-eskeari erantzun deus. Pradalesek jakinarazo dauenez, MTV Music Week izenekoan egingo diran jarduerak aurretik azaldu zan 3 milioi euroko kanonaren barruan sartuko litzatekez. Gainera, Lurraldeko beste udalerri batzuk be ekitaldi horren partaide bilakatzeko asmoa dagola adierazo dau, zenbait jarduera antolatuz.

Pradalesek ahozko beste erantzun-eske bati erantzun deus, oraingo honetan Podemos Bizkaia taldeak Sestao Bai foru soziedadearen bideragarritasun Planaren gainean aurkeztutakoari. Diputatuak jakinarazo dauenez, soziedadeak lur-sail batzuk saldu

deutsaz Lantegi Batuak erakundeari, eta lur-sail batean une honetan ITP dago eta 229 lanpostu sortzea lortu dau.

Gizarte Ekintzaren arloan, Sánchez Robles diputatuak Talde Popularraren itaun bati eta EH Bilduren ahozko erantzun-eske bati erantzun deutse. Lehenengo gaia, Aldundiaren esku dagozan egoitzetako plazen zerrendei eta plaza horreek eskuratzeko itxoin beharreko denporeari buruzkoa zan. Javier Ruiz bozeroale popularrak adierazo dauenez, 2006ko eta 2017ko datuak alderatu ostean, desfasea dago eskinitako plazen eta itxaron zerrendatan dagon persona kopuruaren artean.

Gizarte Ekintzako diputatuak guzurtau egin dau hori, denporak “abaguneak dirala eta” aldatzen dirala eta lehenasuna preminazko kasuak daukiela adierazoz. Eta, esan dauenez, guztiek jasoten ditue zerbitzuari lotutako prestazinoak lehen egunetik. Gainera, adierazo dauenez, hurrengo hiru urteetan %16 egingo dau gora plaza kopuruak. Ruíz ez da Aldundiaren neurriak ados etorri, eta ez dirala nahikoak esan dau. Zaintzaileen Estatutuaren gaineko neurriak beteteari buruzko bigarren gaiari jagokonez, Aldundiko ordezkariak esan dauenez, neurri horreek diseinuaren oso fase aurreratuan dagoz.

Enpleguaren arloan, Teresa Laespada Aldundiko ordezkariak Podemos Bizkaiaren eta Talde Popularraren ahozko erantzun-eske biri erantzun deutse. Lehenengo gaian, Gohiabe Programara 200.000 euro partidea zuzentzearen gainekoan, Aldundiko arduradunak hori izapidetze prozesuan dagola adierazo dau; halanda be, goitik behera ukatu dau Podemos Bizkaia taldeko batzarkideak esandakoa, zuzkidura faltak laguntza horreek jasoten dituen familiengan eragina izan dauela, hain zuzen be.

Foru Aldundiaren tutoretzapean dagozan adin nagusiei buruzko bigarren gaian, Foru erakundeak “familiako babes falta egoeran dagozan gazteentzako arreta integraleko programen” aldeko apustua egiten dauela esan dau Teresa Laespadak, “gizarte inklusiboak egiteko tresna nagusi moduan, persona horreek euren autonomia prozesu lotetsiak egin daiezala bilatuz, Aldundiak ez ditualako eskumen osoak”.

IRUZUR FISKALAREN KONTRAKO BURRUKEA ETA SOZIEDADEEN ZERGEA

Zergakaz erlazionautako gaiei jagokonez, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak Podemos Bizkaia taldeak salaketa publikoen bitarteko iruzur fiskalaren kontrako burrukari buruz egindako itaunari eta Soziedadeen Zergan kuota efektibo hutsa daukien soziedadeen gainean EH Bilduk egin dauen ahozko erantzun-eskeari erantzun deutse. Lehenengo puntuan, Iruarrizagak esan dau 2017an bere sailak 263 salaketa anonimo jaso ebazala, eta horreen artetik %37 artxibau egin zirala, Ogasuneko zerbitzu teknikoek aztertu eta gero. Horren ostean, iruzurraren kontrako telefono zenbaki bat martxan jarteko aukerea baztertu egin dau, “arazo asko sortzen ditualako”.

Bigarren gaiari jagokonez, diputatuak adierazo dauenez, aldaketea egin ostean, oinarri zergagarri positiboa daukien enpresa guztiek Soziedadeen Zerga ordaindu beharko dabe, eta hori ziurtatzeko helburuagaz, murrizketea %17ra mugatu da enpresa handientzat eta ertainentzat eta %15era enpresa txikientzat.

ZINTZOTASUNARI, INTERES GATAZKEI ETA BATERAEZINTASUNEI BURUZKO FORU ARAUA

Osoko saioak, EH Bildu taldeak Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari egindako azkenengo itaun bat be jaso dau, zintzotasunaren printzipio etikoa baztertu dauen Zintzotasunari, interes gatazkei eta bateraezintasunei buruzko Foru Arauaren aldaketaren gainekoa, hori arautuko dauen Etikako Batzorde bat sortzeko aukerea mahai gainean jarritz. Bengoetxeak azaldu dauenez, zintzotasuna arauan jasotako printzipio etikoetako bat dan arren, ez da bakarra, baina bere presentzia ziurtatuta dago Arauan. Horrez gain, adierazo dauenez, “ikertzeaz eta zehapenak jaritez gain, prebentzioa be egingo dauen” Foru Araua betetea zainduko dauen berme organua sortuko da.

GARRAIOA ETA IRAUNKORTASUNA

Gaurko osokoak beste lau gai landu ditu –itaun bat eta ahozko hiru erantzun-eske-garraioen eta iraunkortasunaren inguruan. Vicente Reyes Garraio diputatuak, Podemos Bizkaia taldeak egindako erantzun-eskeari erantzunez, Enkarterri eskualdeko Bizkaibus lineak hobetzera zuzendutako partidea 4,3 milioi eurokoa dala esan dau. Talde Popularrak, bere aldetik, Bilbao Air alkartearen azken 15 urteetako balantzea egiteko eskatu deutso diputatuari; gai horri jagokonez, soziedadeak etorkizunerako aukerea daukala esan dau Reyesek, erakundeek onetsitako Plan Estrategikoaren bitartez. Plan horretan 39 puntu ahul zehazten dira.

Beste alde batetik, Iraunkortasunaren arloan, Elena Unzueta diputatuak, Podemos Bizkaia eskatuta, klimaren aldaketaren kontrako burrukan Bizkaian gauzatzen ari diran ekintzak zehaztu ditu, eta, horrez gain, Arraiz mendiko Tratamentu Mekaniko Biologikoko lantegia (TMB) zein egoeratan dagon azaldu dau, Q Sukar agerraldi bat sortu izanaren barri zabaldu ostean. Protokoloagaz jarraituta, diputatuak lau infekzino kasu posible dagozala, eta Aldundia azkenengo analitiken emaitzen zain dagola adierazo dau. Azaldu dauenez, gai hori Aldi Baterako Enpresen Alkartearen (ABEA-UTE) eskumena da, eta hori Aldundiagaz hartu-emonetan dago, Garbikerren bitartez.

25/04/18

El programa Goihabe, la Red MOIN y la contratación de personal para grandes eventos centran el Pleno de Control

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado esta mañana una sesión plenaria de control que ha registrado dos interpelaciones y una pregunta oral de los grupos de la oposición en torno a tres asuntos: las condiciones de contratación de personal y suministro en los principales eventos subvencionados o políticamente apoyados por la Diputación Foral de Bizkaia; la incorporación del ente foral a la Red Mundial de Innovación (MOIN); y la continuidad de los Procesos y la Atención a las Personas Refugiadas atendidas por el Programa Goihabe. La sesión se ha completado con ocho preguntas orales y cuatro interpelaciones más, en torno a diferentes cuestiones del ámbito del empleo, la fiscalidad, transportes y sostenibilidad.

El Pleno se ha abierto con una interpelación del Grupo Mixto acerca de la inclusión de la Diputación Foral entre los 22 fundadores de la Red MOIN y los objetivos que persigue con su incorporación. El Diputado General, Unai Rementeria, que ha sido el encargado de responder, ha resaltado la importancia de innovar tanto en el ámbito público como privado y ha valorado positivamente la presencia de la Diputación en la red. En este sentido, todos los agentes fundadores trabajarán sobre cuatro cuestiones: envejecimiento, movilidad sostenible, crecimiento demográfico, e inteligencia artificial. Asimismo, Rementeria ha manifestado la idea de que una de las sesiones de la red MOIN tenga lugar en Bizkaia.

Por su parte, el diputado de Desarrollo Económico, Imanol Pradales, ha sido el encargado de responder a una interpelación y una pregunta oral relativa a grande eventos. La primera, una interpelación planteada por EH Bildu, ha hecho hincapié en la necesidad de que las empresas y organizadores de los grandes eventos, que va a acoger Bizkaia este año, garanticen los derechos laborales a fin de evitar contrataciones precarias. Ante esta petición Pradales ha asegurado que se trata de “empresas profesionales que presuntamente respetan la legalidad”. Asimismo ha hecho referencia a las cláusulas sociales y a su guía de inclusión como herramientas principales para evitar este tipo de problemas.

En su segunda intervención, el diputado de Desarrollo Económico ha contestado a una pregunta oral del Grupo Popular sobre el presupuesto del ente foral para la celebración de los Premios MTV. Pradales ha comunicado que las actividades que se realizarán en MTV Music Week entran dentro del canon de 3 millones de euros que ya explicaron anteriormente. Además ha puesto de manifiesto la intención de hacer partícipe a otros municipios del Territorio de la celebración de este evento, organizando distintas actividades.

Pradales ha respondido a una pregunta oral más, esta vez de Podemos Bizkaia, acerca del Plan de viabilidad de la sociedad foral Sestao Bai. El diputado ha transmitido que la sociedad ha vendido parcelas a Lantegi Batuak y que en una de ellas se encuentra ITP actualmente, la cual ha logrado generar 229 puestos de trabajo.

En el ámbito de Acción Social, la diputada Sánchez Robles ha respondido a una interpelación del Grupo Popular y a una pregunta oral de EH Bildu. La primera de las cuestiones versaba sobre las listas de espera para el acceso a las plazas residenciales dependientes del ente foral. El portavoz popular, Javier Ruiz, ha asegurado tras realizar una comparativa entre los datos de 2006 y 2017, que existe un desfase entre las plazas ofertadas y el número de personas que se encuentran en listas de espera.

La diputada de Acción Social ha negado esa afirmación aludiendo a que los tiempos varían “por sus circunstancias”, siendo los casos de carácter más urgente la prioridad. Y ha afirmado que todos ellos reciben las prestaciones vinculadas al servicio desde el primer día. Además ha declarado que en los próximos tres años se incrementarán un 16% el número de plazas. Ruíz ha mostrado su desacuerdo con las medidas forales, tachándolas de insuficientes. Respecto a la segunda cuestión, acerca del cumplimiento de las medidas referidas al Estatuto de personas cuidadoras, la representante foral ha expresado que éstas se encuentran en fase de diseño muy avanzado.

En el ámbito del Empleo, su representante foral, Teresa Laespada, ha respondido a dos preguntas orales de Podemos Bizkaia y Grupo Popular, respectivamente. En la primera de las cuestiones acerca de la concesión de la partida de 200.000 euros destinada al Programa Gohiabe, la responsable foral ha asegurado que ésta se encuentra en tramitación; no obstante ha negado rotundamente las declaraciones de la apoderada de Podemos Bizkaia que aseguraba que la falta de dotación había repercutido gravemente en las familias beneficiarias de esas ayudas.

En la segunda cuestión, relativa a las personas tuteladas mayores de edad, Teresa Laespada ha asegurado que el ente foral apuesta por “programas de atención integral para personas jóvenes en situaciones de desprotección familiar como principal herramienta para hacer sociedades inclusivas pretendiendo que estas personas hagan sus procesos vinculados de autonomía, entendiendo que la Diputación no tiene competencias plenas”.

LUCHA CONTRA EL FRAUDE FISCAL E IMPUESTO DE SOCIEDADES

Asimismo, en cuanto a cuestiones fiscales, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga ha respondido a una interpelación de Podemos Bizkaia acerca de la lucha contra el fraude fiscal a través de las denuncias públicas, y una pregunta oral de EH Bildu sobre las sociedades con cuota efectiva nula en el Impuesto de Sociedades. En el primer punto, Iruarrizaga ha manifestado que en 2017 el departamento recogió 263 denuncias anónimas y que un 37% del total de ellas fueron archivadas tras ser analizadas por el servicio técnico de Hacienda. A continuación ha descartado la opción de habilitar un teléfono antifraude puesto que “genera muchos problemas”.

Respecto a la segunda cuestión, el diputado ha manifestado que tras la modificación todas aquellas empresas que tengan una base imponible positiva deberán pagar el Impuesto de Sociedades y que, con el fin de asegurarlo, se ha limitado la rebaja al 17% en el caso de las grandes y medianas empresas, y al 15% en el caso de las pequeñas.

NORMA FORAL DE INTEGRIDAD, CONFLICTO DE INTERESES E INCOMPATIBILIDADES

La sesión plenaria ha contado con una última interpelación de EH Bildu a la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, sobre la modificación del título de la Norma Foral de integridad, conflicto de intereses e incompatibilidad, retirando el principio ético de integridad y sobre la posibilidad de crear una Comisión de ética que la regule. Bengoetxea ha explicado que aunque la integridad es uno de los principios éticos recogidos en la norma, no es el único, pero que su presencia en la Norma está asegurada. Asimismo ha manifestado que se creará un órgano de garantía que velará por el cumplimiento de una Norma Foral que “además de investigar y sancionar, prevendrá”.

TRANSPORTE Y SOSTENIBILIDAD

La sesión plenaria de hoy ha contado con cuatro cuestiones más - una interpelación y tres preguntas orales - en los ámbitos de transportes y sostenibilidad. El diputado de Transportes Vicente Reyes ha cuantificado, tras una pregunta de Podemos Bizkaia, en 4,3 millones la partida dirigida a la mejora de líneas de Bizkaibus de la comarca de Enkarterri. Por otra parte, el Grupo Popular ha solicitado al diputado que realizara un balance sobre la gestión de Bilbao Air en los últimos 15 años; en este sentido, Reyes, ha asegurado que la sociedad cuenta con opción de futuro a través del Plan Estratégico aprobado por las instituciones, en el que se detallan 39 debilidades.

Por otro lado, en el ámbito de Sostenibilidad, la diputada Elena Unzueta ha respondido, a petición de Podemos Bizkaia, las acciones que se están llevando a cabo en Bizkaia en relación a la lucha contra el cambio climático y también ha expuesto la situación actual en la que se encuentra la planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB) del monte Arraiz después de anunciarse la posibilidad de que se hubiera desencadenado un brote de Fiebre Q. Siguiendo con el protocolo, la diputada ha anunciado que existen cuatro posibles casos de infección y que se encuentran a la espera de las últimas analíticas. Ha explicado también que este tema se trata de una competencia de la Unión Temporal de Empresas (UTE) y que ésta se encuentra en contacto con la Diputación, a través de Garbiker.